


# KRISIEN UDAL KUDEAKETA




# AURKIBIDEA

<u>HITZAURREA</u>	<b>3.</b>
0. FASEA <u>NORMALITATEA</u>	<b>5.</b>
1. FASEA <u>ALERTA</u>	<b>8.</b>
2.FASEA <u>KRISIA</u>	<b>11.</b>
3.FASEA <u>BERRESKURATZEA</u>	<b>19.</b>



# HITZAURREA





**Behin baino gehiagotan entzuten da krisiak etengabeen emango direla, seguruenik, gero eta denbora tarte txikiagoetan, gainera. Krisiek ziurgabetasun handiko testuinguruan kokatzen gaituzte, hondamenezko gertaerek eztanda egin eta erregulartasunez burutzen diren jarduera oinarrizkoenei zuzenean eragiten baitie. Gizartea bezalaxe, administrazioaren jardun publikoa ez dago krisietatik salbu.**

Berriki gairiditutakoek azaleratu dute bat-batean galdutako oreka berreskuratzeko bidean ezohiko eta premiazko neurriek duten garrantzia. Halere, krisialdiek kontrol eza eta inprobisazio sentrazioa areagotzen dutela aintzakotzat hartuz, arduratsu eta zentzuzkoa dirudi ahalik eta aurreikuspen handienarekin errealitate hau kudeatzen lagun dezakeen ibilbide orri malgu eta, batez ere, eraginkorra lantzea.

Hain zuzen ere, horixe da lanketa honen helburua: Donostiako udalak krisi egoerak kudeatzeko plana unitate desberdinekin hausnartu, adostu eta diseinatuta izatea. Denbora-tarte edo aukera murriztak eta, kontrari, behar eta gabezia esanguratsuak dauden sasoian jarraitu beharreko pausuak, hartu beharreko erabakiak edota kasu bakoitzeko arduradun nagusiak jasotzen dira, krisi egoerarako udal kudeaketa ereduaren gida bilakatzeko. Eredua zeharkatzen duen logika erresilientziarena da, hau da, ingurune

berrira egokituz erakundeak krisia suspertzeko ahala izateaz gain, indartuta irtetea. Beste hitz batzuetan esanda, kontrako gertaera modu positiboan aprobetxatu eta irakaskuntzarako aukera bihurtzea, esaterako, erakundearen indargune eta potentzialtasunak detektatuz, berrikuntza indartuz edota aliantza eta sareak sustatuz.

Proposatzen den kudeaketa ereduak lau fase ditu: 0. fasea, normalitatea; 1. fasea, alerta edo krisi aurreko egoera; 2. fasea, krisia eta, 3. fasea, eta bukatzeko, berreskuratzearena.

Krisia sorrarazten duten zergatiak bezalaxe, beraren ezaugarriak ere anitzak izan daitezke. Hala ere, nagusiki 6 krisi mota definitu dira: migratorioa, sanitarioa, ekonomikoa, informatikoa, ingurumenekoa eta segurtasunarena. Krisi motaren arabera, 2. fasea eta hau osatzen duten etapetako erabaki, pausu edota eragileak aldatuko dira.

# NORMALITATEA





Normaltasunak errutinazko errealitate egonkorra irudikatzen du; gorabehera bortitzik gabe denboran aldatzen doazen baldintzak badaude ere, oreka mantentzen da. Modu ezohiko eta berehalakoan kudeatu beharreko arriskurik gabe, hauek iristen direnean, egokitzeko udalaren moldagarritasuna hobetuko duten zenbait tresna garatu eta prest izateko aprobetxatzea da fasearen funtsa.

Horrenbestez, aurreikusten diren krisialdiatarako beharrezko izango diren kudeaketa, antolamendu eta koordinazio gaitasunak handitzeko prebentziozko ekintza berritzaileak garatuko dira.

Etorri daitezkeen krisien konplexutasunari aurre egiteko, udal barne eta kanpoko lankidetzak sareak edota egonkortasuna hausten ari dela azalaraziko duen adierazle esanguratsuen alarma taula

sustatuko dira. Azken hau, Gobernu Planaren osagarria bihurtuko denez, udal gobernuaren ardurapekoa izango da.

Zuzendaritzek (zehazki batzuk: Ekonomia, Osasuna eta Ingurumena, Gizarte Ekintza edota Gizarte Sustapena eta Hezkuntza) adierazle esanguratsuenak detektatu ditzakete alarma taulan jasota gera daitezzen.

Horrez gain, krisi motaren arabera aplikagarriak izango diren prebentziozko jarduera desberdinak eramango dira aurrera. Jarduera hauen bitartez jasotako datuek informazio gehigarria eta gaurkotua eskainiko diote udalari.

Prebentziozko neurriak diren heinean, denboran iraunkorrak izan behar dute, udal osasunaren diagnostikoaren osagai bilakatzeraino.

0 FASEA

## NORMALITATEA

UDALBALTZA

UDAL GOBERNUA

ZUZENDARITZAK



### SAREAK ERAIKI

Udal barne eta kanpokoak

#### Alarma Taula

Lantaldean adierazleak eta mugarriak ezarri, hauek monitorizatuaz, krisiak aurreikusi eta detektatzeko



#### Datuak

Bildu eta ustiatu adierazleak elikatzeko



#### Jarraipena

 Jarraibideak

Langileriaren interes edo gaitasun gehigarrien berri


 Txantiloia

Udal ekipamenduen prozedura

Hurbilekotasun irizpideak kontuan hartuz,  
elkargune puntuen identifikazioa

1. FASEA

# ALERTA





# ALERTA


## 1. FASEA



Prebentzio lanei esker garatutako alarma taulako adierazleen eboluzioak, bat-bateko gertakariak edota erabaki politikoek aurretik definitutako normaltasuna kolokan jarri dezakete; aurreko 3 egoera horiek alerta fasea aktibatuko dute. Jardun publikoaren egonkortasuna arriskura eraman dezakeen egoerara egokitu eta, beraz, behar/premia berriei egokitzeko salbuespeneko prozedura aktibatzen da, krisia deklaratzeko beharrezkoa den erabakitzeko.

Krisien izaera multidimentsionala kontuan izanda ere, bere ezaugarri nagusiek krisi mota, udal eragile nagusiak eta premiazko beharrak definitzen lagunduko dute.

1.FASEA  
**ALERTA**



# KRISIA





Udal deklarazioa argitaratuta, krisia, beraz, udal normaltasunaren behin-behineko etetea, publikoa da.

Aurretiko faseak krisi mota orotan berdintsuak izango direla aurreikusten den bezala, etapa desberdinetan zatituko den hau aldakorragoa espero da. Lehen etapa egonkorrena den bitartean, hurrengoek uneko beharrei erantzuteko formarik aproposena hartuko dute. Behar hauek krisi motaren arabera izango dira. Hitzaurrean aipatuta bezala, nagusiki 6 krisi mota aurreikusten dira: migratorioa, sanitarioa, ekonomikoa, informatikoa, ingurumenekoa eta segurtasunarena.

Fase honetan, udal egituraren ohiko organigramatik haratago izendatutako koordinatzaileak, krisi

mahaia eta krisi taldeak protagonismo gehiago irabazten dute.


Krisi mahaia Udalbatza eta Tokiko Gobernuko kideetako batzuek osatuko dute. Honi esker krisia kudeatzeko hartu beharreko erabaki politikoak arintasun handiagoz hartuko dira.

Bestalde, koordinatzaileak autonomia maila altua izanagatik ere, Zeharkako Proiektuen Eremuaren menpe dago, eta bi hauen koordinaziopean, krisi taldea.

Subjektuez gain, protagonismoa irabaziko dute baita araudiek, funtzio eta betebeharrekin, prozedurekin...

2. FASEA - 1. ETAPA

**KRISIA**



# KRISI MOTA AURKIBIDEA

<u>MIGRATORIOA</u>	15.
<u>SANITARIOA</u>	17.
EKONOMIKOA	xx.
INFORMATIKOA	xx.
INGURUMENEOA	xx.
SEGURTASUNARENA	xx.



2. FASEA - 2. ETAPA  
**MIGRATORIOA**

KRISIAREN KOORDINATZAILEA


KRISIAREN KOORDINATZAILEA

**KRISI MAHAIA**


**ZEHARKAKO PROIEKTUEN EREMUA, LEGE ZUZENDARITZA / LEHENDAKARITZA, PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA, EKONOMIA ETA KONTU-HARTZAILETZA**



**OSTATU EMATEKO UDAL EKIPAMENDUEN KUDEAKETA**  
Hurbilekotasun Irizpideak



- BALORAZIOA**
- Osasun egoeren bideraketa
  - Etxebizitzen kudeaketa  
Irizpideak
  - Elikadura beharren kudeaketa
  - Arropa beharren kudeaketa



Herritarren elkartasun eskaintza informaleko kudeaketa  
Irizpideak

**Identifikazio lanak**  
(\*adin txikikoak)

**Garraioa**  
\*\*Udaleko gainerako ibilgailuak

2. FASEA - 3. ETAPA  
**MIGRATORIOA**

KRISIAREN KOORDINATZAILEA

KRISIAREN KOORDINATZAILEA

**KRISI MAHAIA**


**ZEHARKAKO PROIEKTUEN EREMUA, LEGE ZUZENDARITZA / LEHENDAKARITZA, PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA, EKONOMIA ETA KONTU - HARTZAILLETZA**



**LEHEN MAILAKO UDAL- HARRERA**  
Oinarrizko informazio eta orientazioa **Harrera protokoloa**



**BIGARREN MAILAKO UDAL-HARRERA**  
Udalinfotik legez bermatutako eskubide eta zerbitzuetara sarrera





2. FASEA - 2. ETAPA  
**SANITARIOA**

KRISIAREN KOORDINATZAILEA

KRISIAREN KOORDINATZAILEA

**KRISI MAHAIA**

**ZEHARKAKO PROIEKTUEN EREMUA, LEGE ZUZENDARITZA / LEHENDAKARITZA, PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA, EKONOMIA ETA KONTU-HARTZAILETZA**



**DONOSTIA  
KIROLA**




**DONOSTIA  
KULTURA**



**DONOSTIA  
SUSTAPENA**



**Gizarte  
Sustapena eta  
Hezkuntza**



**DBUS**

**OSASUN ZERBITZUAK ESKAINTZEKO (adib. Txertatze masiboak)  
UDAL EKIPAMENDUEN KUDEAKETA**

**1. Ekipamenduak**

**2.  
UBA aterpetxea**

**3.  
Udal aterpetxeak**

**Garraioa**

**Goizaldiak  
Jubilatu etxeak**

**Abegi Etxea  
Gaueko**



**Herritarren elkartasun  
eskaintza informalen  
kudeaketa**  
Irizpideak


2. FASEA - 3. ETAPA  
**SANITARIOA**

KRISIAREN KOORDINATZAILEA


KRISIAREN KOORDINATZAILEA

**KRISI MAHAIA**

**ZEHARKAKO PROIEKTUEN EREMUA, LEGE ZUZENDARITZA / LEHENDAKARITZA, PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA, EKONOMIA ETA KONTU - HARTZAILETZA**



# BERRESKURATZEA





Krisien udal kudeaketa zikloa ixten duen fasea da. Normaltasuna zapuztu zuen egoeraren amaiera adierazteaz gain, ebaluazioa burutzen da: eskainitako zerbitzu edo aktibatutako ezohiko prozeduren hausnarketa sakona egiten da bizitutakoak utzitako irakaskuntzak jaso eta ohiko funtzionamenduan txertatzeko. Lanketa hau ezinbestekoa da normaltasun berria definitzeko, oreka berreskuratzeko. Izan ere, krisia amaitzean helburuak ez luke hasierako normaltasun berera bueltatzea izan beharko, baizik eta etorkizuneko erronkei erantzun are eraginkor eta sostengagarriagoa emateko ahalmena duen udala lortzea.

3. FASEA

**BERRESKURATZEA**

